



1. ALDIKO PROBLEMAK


1.- EGUTEGIA

Martxoa						
A	A	A	O	L	I	
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Irudian, martxoari dagokion egutegiko orria duzu eta, ikus dezakezunez, 3x3 neurriko lauki bat aukeratu da.

- Kalkulatu, balio absolutuan, laukiaren diagonalen muturretako daten biderkaduren arteko diferentzia.
- Aukeratu beste 3x3-ko lauki bat eta errepikatu goiko apartaduko kalkuluak.
- Beste edozein 3x3 neurriko lauki baten kasuan emaitza bera lortuko al da? Arrazoitu.

2.- TABERNAN



Taberna batean irudian ikus daitekeen bezalako kopa batean “Aitzurrero” izeneko eta 6 eurotan zerbitzen duten koktel bat prestatzen dute ($AB = 8$ cm eta $CD = 10$ cm).


“Aitzurrero Erdia” ere prestatzen dute: kopa bera erabilita baina bere altueraren erdiraino beteta soilik eta 2 € baino ez dute kobratzen berarengatik.

- “Aitzurrero” batekin zenbat “Aitzurrero Erdia” lor ditzakete?
- Zenbat eurotan saldu beharko lukete?

3.- IRATZARGAILUA

Mikelek jakin badaki bere iratzargailua 2 minuto eta erdi aurreratzen dela orduoro. Mutila ordu berean altxatzen da beti. Gaur, goizeko 8etan, iratzargailuak jo duenean ordu hori zen benetan. Bihar ordea, Mikelek ezer ez duela ikutuko kontuan harturik, iratzargailuak jotzen duenean zer ordu izango da benetan? (eman emaitza ordu, minutu eta segunduetan).

4.- INURRI IBILTARIA



Inurri bat irudiarena bezalako 8 alde berdinetako plater baten ertzetik dabil.

Plateraren alde bakoitza 14 cmkoa da. Inurria A erpinetik ateratzen da eta, geziak adierazitako norantzan, ibiltzen hasi da beti plateraren ertzetik. Lehenengo etenaldia, B erpinera iritsi baino lehen, A erpindik 6 cm-ra egin du eta gero, 6 cm-tatik 6 cm-tara etenaldi berri bat egiten du. Guztira 2000 etenaldi egin ditu.

- Zenbat aldiz geratu da A erpinean?
- Zeintzuk dira inurriak A erpinean izan dituen geldialdi

kopuru berdineko gainerako erpinak?